

# Serbofobia

**K**atalunian serbofobia modan dago unionisten eta independentisten artean. Astakerien txanda Joaquim Arrufatek ireki zuen eta oraingoz Joan Tardak itxi du. Halere, bi hauen adierazpen serbofoboak moderatuak bezala kontsideratu daitezke CUPEko zerrrendetan joandako Manuel Delgadok eginikoekin alderatuta. Katedradunak agerkari digital batean esan zuen “Ciudadanos alderdi ultranazionalista bat dela joera serbiarrekoa” eta telebistan “Ciudadanos inoiz bizitzan ikusi dudana alderdi fanatiko nazionalistena da, lerro serbiarrekoa”.

Independentismo katalan hegemonikoak Serbia Espainiarekin parekatzen du, unionismoak, berriz, Herrialde Katalanak “Serbia Handia” proiektuarekin. Erkaketa horiek egitea ez da justua, baina, norbaitek asmatzen badu, horiek unionistak dira. Izan ere, Serbia ezjakintasunetik soilik erkatu daiteke Espainiarekin.

Egun Serbiako Estatu Kataluniako Errepublikak birtualak baino populazio txikiagoa du eta Herrialde Katalanek “Serbia Handiak” izango lukeen populazioa baino handiagoa dute. Historiari begiratzen badiogu, Serbiak bost mende Otomandar Inperioaren menpe egon ostean independentzia eskuratu zuen 1878an lurralde mugatu batean. Serbiar gehienak bere mugetatik kanpo bizi ziren. 1918an hego eslaviar gehienak jasoko zituen estatua jaio zen: Serbiar, Kroaziar eta Esloveniaren Erresuma (Jugoslavia).

Hegoaldeko eslaviar herrialdeen arteko bereizketa nazionalak inperioek sortu zituzten: mendebaldekoen menpeko katolikoak (kroaziarrak) eta ekialdeko ortodoxoak (serbiarrak); hizkuntza aldetik berriz, denek serbokroazieraz hitz egiten dute, esloveniarrak eta mazedoniarrek salbu. Lehenengo hizkuntza serbokroazieraren oso ger-



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Independentismo katalan hegemonikoak Serbia Espainiarekin parekatzen du, unionismoak, berriz, Herrialde Katalanak “Serbia Handia” proiektuarekin. Erkaketa horiek egitea ez da justua, baina, norbaitek asmatzen badu, horiek unionistak dira. Izan ere, Serbia ezjakintasunetik soilik erkatu daiteke Espainiarekin

tukoa da eta bigarrenena bulgarieraren forma bat da.

Bosnia-Herzegovinan, Ekialdeko eta Mendebaldeko inperioen arteko mugan, gehiengo ortodoxoa zen (bosniar serbiarrak) eta gutxiengoa katoliko (bosniar kroaziarrak). Horrez gain, inbasio otomandarren ondorioz bosniar otomandar nortasuna sortu zen erlijio musulmanari lotuta. Istanbulen musulmanentzat abantailak ematen zituenez, herritar asko, zergak saihesteko, dendak ireki ahal izateko edota tokiko administrazioan lan egin ahal

izateko musulman erlijiora bihurtu ziren. Nekazal guneetan ordea, gutxiagotutako nazioetan gertatu ohi izan den moduan, oso gutxi hartu zuten erlijio musulmana, ordura arteko nortasun serbiarra edo kroaziarra mantenduz.

I. Mundu Gerran bere populazioaren hildako portzentaje handiena izan zuen herrialdea Serbia izan zen, %16,7. Halere, II. Mundu Gerraren aurretik, Bosnia-Herzegovinan populazioaren gehiengo ortodoxoa zen. Gerra ostean, 1948, 1953 eta 1961eko erroldetan, populazioaren %44,3, %44,3 eta %42,9rekin, serbiarrek jarraitu zuten talde etniko nazional handiena izaten. Baina, II. Mundu Gerran pairatutako sarraskiaren ondorioz, 1971tik aurrera bigarrenak izatera pasa ziren musulmanen atzetik.

Kroaziako eta Bosniako ehunka milaka serbiar erail zituzten naziek eta beraien kolaboratzaile kroaziarrak eta musulman eslaviarrek. Hain zuzen ere, nazien kolaboratzailea eta 1970eko hamarkadan xaria gida bezala izango zuen estatu islamista proposatu zuen Alija Izetbegović izan zen Bosnia-Herzegovinako lehen presidentea. Honek hil aurretik esan zion bere semeari, egungo Bosniako hiruko presidentzian musulmanak ordezkatzeko dituenari, Erdogan esateko Bosnia-Herzegovina uzten ziola ondare bezala. Semea oraindik urrunago joan da eta 2018ko martxoan Sarajevon Erdoganekin izandako bilera ostean esan zuen jaungoikoak Erdogan bidali duela Turkiara misio berezi batekin. Ordu batzuk beranduago Bosniako hiriburuan Erdonaganek mitin batean parte hartu zuen Europatik etorritako milaka turkiarrek eta bosniar musulmanekin. Legatu eta misioa Otomandar neoinperio bat sortzea da. Hobe luke Delgadok Tabarniako erredua musulman bosniarretan bilatzea eta ez Bosniako serbiarretan. ■